



Planaren Aurkezpena



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Kirolaren Euskal Plana 2003-2007


Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila

Aurkibidea

- 1. Sarrera**
- 2. Euskal kirolaren egoeraren azterketa**
- 3. Egitekoa, Baloreak eta Irizpide Orokorrak**
- 4. Helburu eta Ildo Estrategikoak**
- 5. Planaren Ekintzak eta Jarraimendua**

Kirolaren Lehenbiziko Euskal Planaren metodologia oinarritu da Kirolaren Euskal Sistemari loturiko eragile guztien adostasunean.

Kirolaren Euskal Plana. Metodologiaren eskema



Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendaritzak aldez aurretik eginiko lanek antzeman zuten bazela elkarren arteko gogoetaldia lantzeko beharra.

Kirolaren Euskal Sistema ez dago behar bezala egituratua

- Erakunde Publikoek ez dute behar adinako gidaritza eta koordinaketarik
- Kirol ohituretan funtsezko aldaketak gertatu dira
- Eragileek erantzun autonomoak ematen dituzte, behar bezala koordinaturik ez daudenak

Kirolak Euskadiko Gizartean eta Ekonomian duen garrantzia



Eragilea, aberastasuna eta enplegua sortzeko: gastua ia 855 milioi € dira (Euskadiko BPGren %1,9) eta 18.837 lanpostu mantentzen ditu (EAEko enpleguaren %2,2)



Gizarte Kohesioa handitu eta gizarte harremanak sustatzea: 3.903 klub eta kirol elkarte EAEn.



Hezkuntza



Osasuna




Garapen pertsonala



Herrialde garatuaren irudia bultzatzea

Alde horretatik, Kirolaren Euskal Planak jarduketarako oinarrizko esparrua izan nahi du kiroleko funtsezko eragile guztien esku hartzea eta koordinaketa lortzeko, hala nola haien banan-banako eta talde jarduketak gidatzeko, betiere kirol eredu propioa lortzeari begira.

Lan batzordeen bidez, kirolaren eragile giltzarrien sektore zabalak parte hartu du aldez aurreko egoeraren azterketan eta, era berean, kirol jarduera mota bakoitzerako landu beharreko jarduketa ildoak zeintzuk izan daitezkeen antzematerakoan.



Egoeraren azterketaren ondorio nagusiak

- ❑ **Euskadiko kirol egoera aurreratua dago gure inguruan gertatzen dena ikusita** (jarduera tasa altuak, kirol emaitza nabarmenak, kirol eragile ugari, etab....) **baina bada zer hobetu** (jarduera tasak goratu betidanik gutxien faboraturik egon diren taldeen artean, kirol eragileen arteko koordinaketa eta elkarlana,...).
- ❑ **Euskadik ez du Kirol Eredu Bateraturik Hiru Lurralde Historikoetarako,** eta hori islaturik dago Eskola-Kirolen programen artean dauden desberdintasunetan edota Erakunde bakoitzak errendimenduko eta goi errendimenduko kirolari heltzeko duen modu desberdinean.
- ❑ **Bada zer hobetu lurraldeen arteko** (esaterako: kirola sustatzeko politika eta esperientzia arrakastatsuen berri eman herritarrei) eta **erakundeen arteko koordinaketa eta elkarlanaren bidez** (esaterako: elkarlana Gorputz Heziketako arduradunekin edota Erakundeetako Osasun Alorrarekin,...).
- ❑ **Kirol eskaria etengabe bilakatzen ari da** (gero eta handiagoa da kalitate eskakizuna eta kirol mota eta jarduera maila aberasten ari dira) **eta horrek esan nahi du etengabeko lana egin behar dela** gure azpiegitura, eragile eta, azken buruan, **gure kirol eskaintza egokitu dadin** kirol jarduera ulertzeko modu desberdinetara, betiere **herritarrari emaniko zerbitzuaren kalitatearen** funtsezko baloreak aintzat hartuz.
- ❑ Azkenik, kirola **funtsezko tresna da gizarte gisa dugun irudia garatu** hala nola **gure kultura** zabaltzeko, bai kanpo aldera begira bai gure herritarrentzako beraientzako.

Kirolaren Euskal Sistemaren Egitekoa

“Kirolaren Euskal Eredua garatzea, etengabeko hobekuntzaren bitartez, herritarren bizitza hobetuko duena, kirol jarduera eta jarduera fisiko osasuntsua guztiengana zabalduz, hala nola kirol bikaintasunaren maila goratuz .”

Baloreak *

Berdintasuna

(Integrazioa, elkartasuna, dibertsitatea, tolerantzia)

Erantzukizuna eta Konpromisoa

Partaidetza

Bizi kalitatea

Indarkeriarik eza

Irizpide Nagusiak

- Osasuna, Seguritatea, Ingurumena eta gure Kultura errespetatzea
- Baliabideak ahalik eta hobekien erabiltzea
- Eragileen arteko Elkarlana, Koordinaketa eta Errekonozimendua
- Aginte publikoek, borondatezko kirol jarduera librerako eskubidea bermatu eta bultzatuko dute
- Ekimen Pribatuak kalitatezko kirol zerbitzuak sustatu eta gauzatuko ditu
- Berrikuntza eta etengabeko hobekuntza
- Partaidetza Euskal Gizartearen garapen sozio-ekonomikoan
- Boluntarioak aintzat hartzea

* EAEko II Gazte Planetik **ateratako baloreak** (2002-2005), gure gizartearen erreferentziazko balore gisa.

Helburu Estrategikoak

1

Euskadiko bertarako Kirol Eredua garatzea

2

Kirol Eredu zehaztua garatzeko eta eragile guztien ahaleginak ahalik eta hobekien erabiltzeko aukera emango duen Kirolaren Euskal Sistema garatzea

3

EAEn, kirol zerbitzuen eskaintzaren kalitatea handitzea

4

Kirola sustatzea, herrialde garatuaren irudia eman eta euskal kultur nortasuna zabaltzeko

**Helburu
estrategikoa**

- 1** Euskadirako bertarako Kirol Eredua garatzea, euskal herritarren bizitza aberastu eta bere kirol ibilbiderako “aukera” emango diona.

Ildo Estrategikoa

- 1.a Eskola-Kirola;** *haur kirolariaren hezkuntza garapena osatzeko eta kirolari bakoitzaren beharrak asetzeko Eskola-Kiroleko Eredua zehaztea*
- 1.b Partaidetzako Kirola;** *gure herritarren jarduera mailak goratu eta mantendu herrialde aurreratuenen pareraino iristeko. Horretarako, gure ingurumena nahiz kultur aberastasuna errespetatuko duen kirol jarduera jarraitua, segurua eta osasuntsua sustatu eta erraztu behar da*
- 1.c Errendimenduko Kirola;** *kirol lehiaketa ezberdin asko ziurtatzea eta haiei eustea, gainditze eta lehia beharrak asetzeko aukera emango duena, hala nola kirolari gehienei Goi Errendimenduan aritzeko aukera emango diona.*
- 1.d Goi Errendimenduko Kirola;** *behar adina eragile eskura izatea, estatu mailako eta nazioarteko errekonozimendua lortzeko aukera emango duena. Horretarako, bereiziko dira xede horri begira egokiak diren kirolak.*

Helburu Estrategikoa

2 Kirol Eredu zehaztua garatzeko eta eragile guztien ahaleginak ahalik eta hobekien erabiltzeko aukera emango duen Kirolaren Euskal Sistema egituratzea

Ildo Estrategikoak

2.a Erakunde publikoen erantzukizunak zehaztea:



Udalak

2.b Beste eragile publiko eta pribatuen erantzukizunak zehaztea

- Hezkuntza Zentroak, Unibertsitateak, LH zentroak
- Kirol Klubak, Klub profesionalak eta KSAk
- Euskal Federazioak eta Lurralde Federazioak
- Merkataritza kirol zentroak eta kirol zerbitzuak eskaintzen dituzten beste enpresa eta elkarteak
- Komunikabideak
- Kirolariak
- Beste gizarte eragileak

2.c Koordinaziorako bideak zehaztea

- Kirolaren Euskal Kontseilua eta bere Lan Batzordeak:
 - Osasuna
 - Eskola-Kirola
 - Azpiegiturak
 - Prestakuntza eta Enplegua
- Sustapen Olinpikorako E.B.
- Kirol Justiziarako E.B.
- Kirolaren Euskal Eskola
- Kirol Medikuntzarako Euskal B.
- Kiroleko indarkeriaren aurkako batzordea
- Unibertsitateko kirolerako Euskal batzordea
- Kirolaren Euskal Behatokia

Helburu Estrategikoa

3 EAEn, kirol zerbitzuen eskaintzaren kalitatea handitzea.

Ildo Estrategikoak

3.a Azpiegiturak planifikatzea: zehazki, Euskadin, datozen hamar urteotan eredu gisa balioko duen azpiegituren eta ekipamenduen plan bat ezartzean datza; horren barnean, EAEko kirol azpiegitura mota guztien eraikitzearen eta kudeaketaren planifikazioa zehazten dituzten ildo orokorrak izango ditugu, honela, lurralde eta eskualde mailan esparru honen barne erakundeetako ekintzak koordinatuko dituelarik.

3.b Eragileak gaitzea: eragileen prestakuntza neurriak bultzatu, indartu eta koordinatzea, Euskal Kirol Planean definituriko erronkei heldu diezaieten, baita beren helburu eta erantzukizunak gauzatzeko, agerian dauden aukerak aprobe txatu ditzaten.

3.c Kalitatezko baloreak sustatzea: Kirolaren Euskal Sistemaren Kalitatea indartu, ezarri eta errespetatzea helburu duten ekintzak bultzatu eta egituratzean datza, alderdi hauen inguruan:

- Osasuna Seguritatea
- Ingurumena Etika, eta indarkeriarik eza

3.d Kirol ekitaldiak planifikatzea: Zehazki, kirol motaren arabera, ekitaldi egutegi bat zehaztean datza, Kirolaren Euskal Sistemaren zehazturiko lehentasun eta irizpideen arabera, baliabide publiko eta pribatuen arrazionalizatzea eta erabilera eraginkorra bultzatzea.

Ildo Estrategikoa

4 Kirola sustatzea, herrialde garatuaren irudia eman eta euskal kultur nortasuna zabaltzeko.




Ildo Estrategikoak

- 4.a** Kirola tresna gisa erabiltzea, gure herrialdeak duen gaitasuna eta euskal kulturaren identitatea kanporantz proiektatzeko
- 4.b** **Euskal Herriko kirola indartzea**, bai kanporantz proiektatzeko tresna garrantzitsu gisa, baita euskaldunen artean euskal kultur nortasuna zabaltzeko eta finkatzeko ere.
- 4.c** Euskal kultura duten lurraldeetan, tresna eta ekimenen eraikuntza indartzea **talde identitatearen garapenerako**.
- 4.d** Kirolaren bizitza zikloaren garapena, partehartzaile aktibo gisa, hautazko hizkuntzan gertatu ahal izatea eta kirol-ekitaldi garrantzitsuen emankizunetan erabilitako hizkuntza **euskara** izatea.

Lehentasunezko programa identifikatuek zerikusi zuzena dute, jakina, aldez aurretik zehaztutako Helburu Estrategikoekin

Lehentasunezko programak	Kirolaren Euskal Eredua				Kirolaren Euskal Sistema	Eskaintza kalitatea	Kanpo islapena eta identitatea
	Eskola-Kirola	Partaidetzako Kirola	Errendimenduko Kirola	Goi Errendimenduko Kirola			
P1. Eskola-Kirola	■				■		
P2. Kirola Sustatu eta Indartzea		■			■		
P3. Kirol Bikaintasuna			■				
P4. Prestakuntza, Gaikuntza eta Akreditazioa	■						
P5. Kirol Azpiegiturak eta Ekipamenduak ahalik eta hobekien erabiltzeko Plana.	■						
P6. Kanpo islapena					■		■
P7. Kirola eta Kultura					■		■
P8. Kirol Eredua eta KESren informazioa, jarraitimendua eta ebaluazioa.					■		

Planaren Ebaluazioa eta Jarraitimendurako Ereduak Kirolaren Euskal Sistemaren eragile guztien konpromisoa behar du, zehaztutako Helburu Estrategikoak lortzera bideratutako ekintzen identifikazioan. Beraz, zehaztutako Kirol Ereduaren lorpen eta hobekuntzan aurrera egitea eragile guztien erantzukizuna izango da.

<i>Ebaluazioaren faseak</i>	<i>Epea</i>	<i>Helburua</i>	<i>Metodologia</i>
 Ezarpena	2003ko uztaila 2003ko urria	Eragileen konpromisoak zehaztea, plana abian jartzeko	Datuak eta jarduketa-protokoloak bildu eta agiriak aztertzea Konpromiso eta kronogramei buruzko txosten bat egitea
 Garapena	2004ko uztaila, 2005ko uztaila, 2006ko uztaila eta 2007ko uztaila	Helburuen betetze eta ekintzen berreraiketa mailan gerta daitezkeen desbideraketak aztertzea, neurri zuzentzaileen bidez	Neurketa-adierazleak aztertzea Berariazko inkestak Lanerako eta gogoetarako taldeak Jarraitimendurako txostenak egitea
 Bukaera	2008ko urtarrila- martxoa	Planaren helburuen betetze maila aztertzea	Datuak bildu eta agiriak aztertzea Berariazko inkestak Lanerako eta gogoetarako taldeak Planaren emaitzak ebaluatzeko txosten bat egitea